**EBAZPENA, 2024KO APIRILAREN 17KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETAKO ZUZENDARIARENA, LANBIDE HEZIKETARI APLIKATUTAKO IKERKETA ETA BERRIKUNTZAKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ZENTROAN (TKNIKA) HAINBAT LANPOSTU ZERBITZU-EGINKIZUNETAN BETETZEKO EDO, HALA BADAGOKIO, BEHIN-BEHINEAN ESLEITZEKO DEIALDIA EGITEN DUENA 2024/2025 IKASTURTEAN, HORIETAKO BI 2025/2026 IKASTURTERA ARTE.**

**RESOLUCIÓN DE 17 DE ABRIL 2024, DE LA DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POR LA QUE SE CONVOCAN PARA SU COBERTURA, EN RÉGIMEN DE COMISIÓN DE SERVICIOS O ASIGNACIÓN PROVISIONAL, EN SU CASO, VARIOS PUESTOS DE TRABAJO EN EL CENTRO DE INVESTIGACIÓN E INNOVACIÓN APLICADA DE LA FORMACIÓN PROFESIONAL DEL PAÍS VASCO (TKNIKA) DURANTE EL CURSO ESCOLAR 2024/2025, DOS DE LOS CUALES HASTA EL CURSO ESCOLAR 2025/2026.**

Deialdi honen xedea da Lanbide Heziketari Aplikatutako Ikerketa eta Berrikuntzako Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroan (TKNIKA) zenbait lanpostu betetzea 2024/2025 ikasturtean, horietako bi 2025/2026 ikasturtera arte, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzak proposatuta.

El objeto de esta convocatoria es cubrir varios puestos en el Centro de Investigación e Innovación Aplicada de la Formación Profesional del País Vasco (TKNIKA), durante el curso escolar 2024/2025, dos de los cuales hasta el curso escolar 2025/2026, a propuesta de la Dirección de Tecnología y Aprendizajes Avanzados.

Lanpostu horiek zerbitzu-eginkizunetan beteko dira, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 106. eta 110. artikuluak eta hurrengoak aplikatuz. 106. artikuluak zerbitzu-eginkizunak arautzen ditu, eta 110. artikuluak, berriz, zerbitzu-eginkizunak, dagokion gobernu-organoak onartutako izaera bereziko zereginak eta programak, proiektuak edo planak egiteko, edo lanpostu bati berariaz esleitu gabeko eginkizun bereziak betetzeko. Biak erabiliko dira deialdi honetan zehaztutako lanpostuak betetzeko. 106. artikuluan arautako zerbitzu-eginkizunen kasuan, 2024/2025 ikasturterako izango dira. 110. artikuluan arautako zerbitzu-eginkizunek, aldiz, gehienez ere bi ikasturteko iraupena izango dute, 2025/2026 ikasturtera arte, eta gehienez beste bi ikasturtez luzatu ahal izango dira.

Estos puestos se proveerán en régimen de comisión de servicios, en aplicación del artículo 106 y 110 y siguientes de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco. El artículo 106 regula la comisión de servicios, y el artículo 110 la comisión de servicios para la realización de tareas de naturaleza especial y programas, proyectos o planes aprobados por el correspondiente órgano de gobierno, o para el desempeño de funciones especiales no asignadas específicamente a un puesto de trabajo. Ambas serán utilizadas para proveer los puestos detallados en la presente convocatoria. En el caso de las comisiones de servicio reguladas en el artículo 106 serán para el curso escolar 2024/2025. Las comisiones de servicio reguladas en el artículo 110, en cambio, tendrán una duración máxima de dos cursos escolares, hasta el curso 2025/2026, prorrogables un máximo de dos cursos escolares más.

Gehienez ere bi ikasturteko iraupena izango dutenak beharrizanei eustearen baldintzapean egongo dira. Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak gehienez beste bi

En el caso de estas últimas que tendrán una duración máxima de dos cursos escolares, estarán condicionadas a que se mantengan las necesidades. Serán prorrogables un

ikasturtez luzatu ahal izango ditu, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzak proposatuta.

máximo de dos cursos escolares más por la Dirección de Gestión de Personal, a propuesta de la Dirección de Tecnología y Aprendizajes Avanzados.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duen uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren 12. artikuluko 4. eta 5. paragrafoak ere aplikatuko dira funtzionarioei.

También será de aplicación el artículo 12, párrafos 4 y 5, del Decreto 185/2010, de 6 de julio, por el que se aprueba el Acuerdo Regulador de las condiciones de trabajo del personal funcionario docente no universitario de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Esta figura será de aplicación para el personal funcionario.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren ekainaren 28ko 4/2018 Legearen lehen xedapen gehigarria aplikatuko zaie:

*"3. Organismo horiei atxikitako lanpostuak betetzeko sistema merezimendu-lehiaketaren bidezkoa izango da, zeina Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren arloan eskumena duen sailak egingo baitu, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatez kanpoko Irakaskuntzako Irakasleen Kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legearen 33. artikuluan ezarritako baldintzetan.*

*4. Aurreko paragrafoan zehazten den moduan betetako lanpostuez gainera, organismo horiek laguntza emateko langileak izan ahal izango dituzte zailtasun berezia duten proiektuak edo kualifikazio berezia eskatzen duten proiektuak aurrera eramateko, betiere lege honetan jasotzen den lanbide-heziketako eredu konbinatuaren dena delako atalen batekin lotura badute proiektuok. Langile horiek zerbitzu-eginkizunetan jardungo dute, dagozkien eginkizunak aurrera eramateko, lanpostua betetzeko berariaz egingo den deialdiaren bidez. Kasuan kasurako egingo diren deialdi horietan, kontuok zehaztuko dira: egin beharreko lanak zein diren, bete beharreko baldintza bereziak eta zer gaitasun profesional eskatzen den. Zerbitzu-eginkizun horiek berritzeko aukera egongo da egokitutako proiektua amaitu arte, baina aldez aurretik, egindako lanari buruzko*

Asimismo, se les aplicará la disposición adicional primera de la Ley 4/2018, de 28 de junio, de Formación Profesional del País Vasco:

*"3. El sistema de provisión de los puestos de trabajo adscritos a dichos organismos será por concurso de méritos convocado por el departamento competente en materia de educación en las condiciones que se establecen en el artículo 33 de la Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de la Enseñanza no Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.*

*4. Además de los puestos de trabajo provistos según se señala en el párrafo anterior, dichos organismos podrán contar con personal de apoyo para la realización de proyectos concretos de especial dificultad o que requieran de una especial cualificación y que estén relacionados con los diferentes componentes del modelo combinado de formación profesional que se define en esta ley. Este personal será asignado en régimen de comisión de servicios para el desempeño de las tareas que le correspondan, mediante convocatoria específica. En las pertinentes convocatorias constarán las tareas a realizar y los requisitos específicos y de capacitación profesional requeridos. Estas comisiones de servicio podrán renovarse, previo informe positivo de la labor realizada, hasta la finalización del proyecto asignado. En el caso de no poder cubrir estos puestos por el sistema previsto, podrán ofertarse a*

*aldeko txostena beharko da. Lanpostu horiek ezin badira bete aurreikusitako sistemaren bidez, bitarteko funtzionarioei eskaintzeko aukera egongo da, baina, horretarako, sortuko diren zerrenda espezifikoetan, eginkizuna egoki aurrera eramateko behar diren titulazioari edo gaitasun profesionalari buruzko eskakizunak jaso beharko dira."*

*funcionarios interinos, incorporando a las listas específicas que se creen para estos puestos los requisitos de titulación o capacitación profesional requeridos para el adecuado desarrollo de su tarea."*

Lan-kontratuko langileei dagokienez, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 83. artikuluan ezartzen da lan-kontratuko langileen lanpostuak eta mugikortasuna aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboetan ezarritakoaren arabera beteko direla, eta, halakorik ezean, lanpostuak betetzeko eta karrerako funtzionarioak mugitzeko sistemaren arabera.

Respecto al personal laboral, el Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, establece en su artículo 83 que la provisión de puestos y movilidad del personal laboral se realizará de conformidad con lo que establezcan los convenios colectivos que sean de aplicación y, en su defecto por el sistema de provisión de puestos y movilidad del personal funcionario de carrera.

Horregatik, egokitzat jotzen da lan-kontratuko langileek lanpostuak betetzeko deialdi honetan parte hartu ahal izatea behin-behineko esleipenaren bidez, zerbitzu-eginkizunen sistemaren antzekoa baita.

Por ello, se estima adecuado que el personal laboral pueda participar en la presente convocatoria de provisión de puestos mediante la figura de la asignación provisional, la cual se asemeja al sistema de comisiones de servicio.

Bitarteko funtzionarioei dagokienez, betiere 2023/2024 ikasturtean ikasturte osoko plaza bat lortu badute, deialdi honetan parte hartu ahal izango dute, bakar-bakarrik behin-behinean betetzea esleitu ahal izango zaie karrerako funtzionarioek edo lan-kontratu finkoa duten langileek zerbitzu-eginkizunetan beteko ez dituzten lanpostuak.

En lo que al personal funcionario interino se refiere, siempre y cuando hayan obtenido una plaza de curso completo durante el curso 2023/2024, podrán participar en la presente convocatoria, y única y exclusivamente, se les podrá asignar el desempeño de manera provisional de los puestos que no vayan a ser cubiertos en comisión de servicios por el personal funcionario de carrera o el personal laboral fijo.

Horrenbestez, eta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta,

En su virtud, y teniendo en cuenta lo dispuesto en el artículo 10 del Decreto 71/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación.

**EBAZTEN DUT**

**RESUELVO**

**Lehenengoa.- Deialdiaren xedea.**

**Primero.- Objeto de la convocatoria**.

Deialdi honen xedea Lanbide Heziketari Aplikatutako Ikerketa eta Berrikuntzako Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroan (TKNIKA) 2024/2025 ikasturterako hamar lanpostu betetzea da, eta horietako bi 2025/2026 ikasturtera arte.

Es objeto de la presente convocatoria proveer diez puestos de trabajo en el Centro de Investigación e Innovación Aplicada de la Formación Profesional del País Vasco (TKNIKA), para el curso escolar 2024/2025, dos de los cuales hasta el curso escolar 2025/2026.

a) atalean ezarritakoak 2024/2025 ikasturterako izango dira; b) atalean ezarritakoak, berriz, gehienez ere bi ikasturteko iraupena izango dute, 2025/2026 ikasturtera arte, eta gehienez beste bi ikasturtez luzatu ahal izango dira.

Los establecidos en el apartado a) serán para el curso escolar 2024/2025, en cambio, los listados en el apartado b), tendrán una duración máxima de dos cursos escolares, hasta el curso escolar 2025/2026, prorrogables un máximo de dos cursos escolares más.

a) Zerbitzu-eginkizuna:

- **Erakunde adimendunetako baliabideen kudeaketan aplikatutako berrikuntzako teknikaria.**
- **Ingurune birtualen aplikazioko eta garapeneko ikertzailea.**
- **Hodeiko eta 5Gko teknologia natiboetako ikertzailea.**
- **Eragiketa-inguruneetako eta informazioaren teknologietako zibersegurtasuneko ikertzailea.**
- **Eraikingintza adimendun eta jasangarriko ikertzailea.**
- **Nekazaritzako elikadurako eta 4.0 Osasuneko ikertzailea.**
- **Lanbide Heziketaren eta enpresaren arteko lankidetza-eredu berrien integrazioko teknikaria.**
- **Nazioarteko ikerketa-proiektuen garapenean aplikatutako ikerketako teknikaria.**

a) Comisión de servicios:

- **Técnico/a en innovación aplicada en la Gestión de recursos en una organización Inteligente.**
- **Investigador/a en aplicación y desarrollo de Entornos Virtuales.**
- **Investigador/a en tecnologías nativas en la nube y 5G.**
- **Investigador/a en Ciberseguridad en entornos operacionales y tecnologías de la información.**
- **Investigador/a en edificación inteligente y sostenible.**
- **Investigador/a en agroalimentación y Salud 4.0.**
- **Técnico/a en la integración de nuevos modelos de colaboración FP-EMPRESA.**
- **Técnico/a en investigación aplicada en desarrollo de proyectos de investigación internacionales.**

b) Izaera bereziko zerbitzu-eginkizuna:

- **Eraldaketa digitaleko, konektibitateko, sistemetako eta azpiegituretako**

b) Comisión de servicios de naturaleza especial:

- **Investigador/a en transformación digital, conectividad, sistemas e**

**ikertzailea.**

- **Ikasteko prozesuaren eraldaketa digitaleko ikertzailea.**

Era berean, deialdi honen I. eranskinean jasotzen dira lanpostuen gaitasun espezifikoak eta teknikoak.

**Bigarrena.- Betekizun orokorrak.**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako kidegoetako karrerako funtzionarioak izatea, hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketa espezifikoari dagozkion espezialitateetakoak, Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetako irakasleak berariazko Lanbide Heziketako espezialitateetara atxikitzen dituen urriaren 6ko 1635/1995 Errege Dekretuaren bidez ezarritakoak.

2. Lehen aipatutako hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako irakasleen espezialitateei dagokien araudiaren bidez, esleitutako irakaskuntzetan irakasteko adjudikazioa duten lan-kontratuko irakasle finkoek ere parte hartu ahal izango dute.

3. Era berean, aipatutako irakasleen kidegoen bitarteko funtzionarioek ere parte hartu ahal izango dute prozesu honetan, eta bete gabe geratu diren lanpostuetako eginkizunak esleitu ahal izango zaizkie, baldin eta ebazpen-zati honetan eskatutako baldintzak betetzen badituzte, eta, prozesu honetan lortutako guztizko puntuazioaren arabera.

4. Zerbitzu aktiboko egoeran egotea 2023/2024 ikasturte osoan zerbitzu-eginkizunetan sartu nahi den irakasle-kidegoan, edo lanpostua gordetzea dakarten administrazio-egoeretako batean, eginkizun-etenaldia izan ezik; Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe

**infraestructuras.**

- **Investigador/a en la transformación digital del proceso de aprendizaje.**

Asimismo, en el Anexo I de la presente convocatoria se recogen las competencias específicas y técnicas de los puestos.

**Segundo.- Requisitos generales.**

1. Ser personal funcionario de carrera de los Cuerpos de Enseñanza no Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de las especialidades propias de la Formación Profesional específica del sistema educativo, establecidas mediante el Real Decreto 1635/1995, de 6 de octubre, por el que se adscribe el profesorado de los Cuerpos de Profesores de Enseñanza Secundaria y Profesores Técnicos de Formación Profesional a las especialidades propias de la Formación Profesional específica.

2. Podrá también participar el personal laboral docente fijo con asignación docente en las enseñanzas atribuidas mediante la normativa correspondiente a las especialidades del profesorado de la formación profesional del sistema educativo antes citado.

3. Asimismo, podrá participar el personal funcionario interino de los citados Cuerpos en el presente proceso, a quien se le podrá asignar las funciones de los puestos que hayan quedado desiertos, en su caso, siempre y cuando cumplan con los requisitos exigidos en este Resuelvo y en función de la puntuación total obtenida en el presente proceso.

4. Encontrarse en situación de servicio activo en el Cuerpo docente al que se quiera acceder en comisión de servicios durante todo el curso completo 2023/2024 o en alguna de las situaciones administrativas que conllevan reserva de puesto, excepto la suspensión de funciones; en un centro

publiko batean.

5. Era berean, zerbitzu berezietan edo borondatezko eszedentzian daudenek ere parte hartu ahal izango dute, deialdi honen bidez jarduneko zerbitzura itzuliz, betiere bertan egoteko gutxieneko epea bete badute.

6. 2023/2024 ikasturtean egindako zerbitzu- eginkizun edo behin-behineko esleipen batean balorazio negatiboa jaso ez izana.

7. Ebazpen hau argitaratzen den egunean, 2024/2025 ikasturterako zerbitzu-eginkizunetan edo behin-behineko esleipenean deialdi honetan deitutakoez bestelako lanpostu baterako izendatu ez izana.

8. Lanpostuaz benetan jabetzea; bestela, zerbitzu-eginkizun edo behin-behineko esleipena bertan behera geratuko da.

9. Ebazpen honen I. eranskinean lanpostu bakoitzerako ezarritako gainerako betekizun espezifiko eta gehigarriak.

10. Deialdi hau argitaratu aurretik baldintza guztiak bete behar dira.

11. Baldintza guztiak 2024/2025 ikasturtean eta aipatutako bi lanpostuen kasuan 2025/2026 ikasturtean ere mantendu beharko dira.

**Hirugarrena**.- **Baztertzeak eta uko egiteak.**

a) Deialdi honetatik kanpo geratuko dira IRALE programaren bidez 2024/2025 ikasturterako eta esandako bi lanpostuen kasuan 2025/2026 ikasturterako liberatuta egongo direnak ere.

b) Zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena esleitu ondoren, oro

público dependiente del Departamento de Educación.

5. Asimismo, podrán concurrir, reingresando al servicio activo a través de esta convocatoria, quienes se encuentren en situación de excedencia voluntaria, siempre que hubieran cumplido el plazo mínimo de permanencia en la misma.

6. No haber recibido valoración negativa de una comisión de servicios o asignación provisional desempeñada en el curso 2023/2024.

7. No haber sido objeto de nombramiento en comisión de servicios o asignación provisional, para el curso 2024/2025, para otro puesto distinto a los convocados en la presente convocatoria, a la fecha de la publicación de esta Resolución.

8. Tomar posesión efectiva del puesto de trabajo; en caso contrario, decaerá la comisión de servicios o la asignación provisional.

9. Los demás requisitos específicos y adicionales establecidos para cada puesto en el Anexo I de la presente Resolución.

10. Todos los requisitos deben estar perfeccionados con anterioridad a la publicación de la presente convocatoria.

11. Todos los requisitos deberán mantenerse a lo largo del curso 2024/2025 y en el caso de los dos puestos mencionados durante el curso 2025/2026 también.

**Tercero**.- **Exclusiones y renuncias.**

a) Quedan excluidos de la presente convocatoria quienes vayan a estar liberados por el programa IRALE para el curso escolar 2024/2025 y en el caso de los dos puestos mencionados para el curso escolar 2025/2026 también.

b) Una vez adjudicada la comisión de servicios o asignación provisional, con

har, ezin izango da uko egin ikasturtea amaitu arte.

carácter general, no se podrá renunciar a ella, hasta finalizar el curso escolar objeto de la presente convocatoria.

**Laugarrena.- Eskabideak formalizatzeko eta aurkezteko epea.**

1. Eskabide formalizazioa.

Hautagaiek HEZIGUNEA atariaren bidez (https://hezigunea.euskadi.eus) aurkeztu beharko dute eskabidea, "Izapideak langileen sailarekin" menuko "Eremu pertsonala" menuan, "Zerbitzu-eginkizunen eskaera" estekan klik eginez.

Beharrezkoa izango da, aldez aurretik, identifikatzea eskatzailearen NAN/AIZ + Pasahitza, XLNets erabiltzailea, baldin badago, edo BakQ bidez.

Gehienez, 3 lanpostu eskatu ahalko dira. Eskaera aukeratutako postua edo postuak adieraziz egin beharko da, lehentasun-irizpidearen arabera ordenatuta.

Izangaiek 2024-2025 ikasturterako zerbitzu-eginkizunen bidez edo behin-behineko esleipenaren bidez lanpostuak betetzeko **prozedura bakar batean** parte hartu ahal izango dute, ebazpen honen datatik aurrera deitutakoen artean. Eskatzaile batek deialdi batean baino gehiagotan egiten badu eskaera, erregistratutako azken eskaera bakarrik hartuko da kontuan, HEZIGUNEA atarian jasotako erregistro-data eta -ordua kontuan hartuta.

2. Epea:

Eskabideak aurkezteko epea **2024ko apirilaren 17an hasi eta apirilaren 24an amaituko da**, biak barne.

**Bosgarrena.- Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.**

Parte hartzeko eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko

**Cuarto.- Formalización de solicitudes y plazo de presentación.**

1. Formalización solicitud.

Las personas candidatas deberán presentar su solicitud a través del portal HEZIGUNEA (https://hezigunea.euskadi.eus), desde el menú “Trámites con personal”, que se encuentra dentro del menú “Área personal”, pinchando sobre el link “Solicitud de comisiones de servicio”.

Será necesaria la identificación previa a través de DNI/NIE + Contraseña, usuario XLNets, si ya se dispone, o BakQ de la persona solicitante.

Podrán solicitarse un máximo de 3 puestos. La solicitud deberá realizarse con expresión del puesto o puestos interesados e irán ordenados conforme a un criterio de preferencia.

Las personas aspirantes podrán participar **solo en un procedimiento** de provisión de puestos por comisión de servicios o asignación provisional para el curso 2024-2025 de entre los convocados de la fecha de la presente en adelante. En caso de qué una misma persona solicitante formalice solicitud en más de una convocatoria, se tendrá en cuenta únicamente la última solicitud registrada, en base a la fecha y hora de registro qué consten en el portal HEZIGUNEA.

2. Plazo:

El plazo para presentar las solicitudes **comenzará el 17 de abril y finalizará el 24 de abril de 2024**, inclusive.

**Quinto.- Documentación a presentar junto con la solicitud.**

La solicitud de participación deberá ir acompañada de la siguiente documentación:

dira:

1. I. Eranskinean eskatzen diren **betekizun espezifikoak:** Egiaztatzeko agiriak. Agiri bidez egiaztatu beharko dira Administrazio honetan interesdunaren fitxa pertsonalean behar bezala egiaztatuta ez dauden betekizunak.

2. **Memoria:** Hautagaiek II. eranskinean jasota dauden lanpostu bakoitzaren gaitasun espezifikoei/teknikoei buruzko memoria aurkeztu beharko dute. **Eskatutako lanpostu bakoitzeko memoria bat aurkeztu beharko da.** III. eranskinaren formatua erabili beharko da.

3. **Alegatutako merezimenduak:** Egiaztagiri ofizialak. Ez dira baloratuko eskabidearekin batera aurkeztu ez diren merezimenduak, ezta, eskabidean ageri arren, behar bezala egiaztatzen ez direnak ere. Dagoeneko administrazioan behar bezala egiaztatutako merezimenduak bakarrik alegatu egin beharko dira, eta gainerakoak dagozkien agirien bidez egiaztatuko dira.

Ez dira baloratuko eskabidearekin batera aurkeztu ez diren memoriak eta merezimenduak, ez eta Administrazio honetan egiaztatu gabe egonik behar bezala egiaztatu ez direnak ere.

**Seigarrena.- Merezimenduen balorazioa.**

Eskatzaileen merezimenduak eta memoria deialdi honen II. eranskinean argitaratutako baremoaren arabera puntuatuko dira. Ebazpen hau argitaratu aurretik izandako eta behar bezala egiaztatutako merezimenduak baino ez dira baloratuko.

Halaber, prozesutik kanpo geratuko dira memorian eman daitekeen puntuazioaren % 50 gutxienez lortzen ez duten pertsonak. Beraz, hauen merezimenduak ez dira

1. **Requisitos específicos** exigidos en el Anexo I: documentación acreditativa de los mismos. Únicamente deberán acreditarse documentalmente aquellos requisitos que no estén debidamente acreditados en esta Administración, en la ficha personal de la persona interesada.

2. **Memoria:** Las personas candidatas deberán presentar una memoria sobre las competencias técnicas/específicas de cada puesto, recogidas en el Anexo II. **Deberá presentarse una memoria por cada puesto solicitado.** Se deberá utilizar el formato del Anexo III.

3. **Méritos alegados:** Documentación acreditativa oficial. No serán valorados los méritos no alegados con la solicitud, ni aquellos que, figurando en la misma, no sean debidamente acreditados. Aquellos méritos que ya estén debidamente acreditados en esta Administración deberán ser únicamente alegados, y el resto se acreditarán mediante los documentos correspondientes.

No serán valoradas las memorias ni méritos no presentadas con la solicitud, ni aquellos que, figurando en la misma y no estando acreditados en esta Administración, no sean debidamente acreditados.

**Sexto.- Valoración de méritos.**

Los méritos de las personas solicitantes, así como la memoria, se puntuarán de acuerdo con el baremo publicado en el Anexo II de esta convocatoria. Únicamente serán valorables los méritos perfeccionados antes de la fecha de la publicación de la presente Resolución, y debidamente acreditados.

Quedarán excluidas del proceso aquellas personas que no obtengan como mínimo un 50% de la puntuación otorgable en la memoria. Por lo tanto, sus méritos no serán

baloratuko.

Puntuazioan berdinketarik gertatuz gero, baremoko atal bakoitzean puntuaziorik handiena lortzeari jarraituko zaio, baremoan ezarritako hurrenkeraren arabera.

**Zazpigarrena.- Balorazio-prozesuaren faseak.**

1. Pertsonak eskatutako lanpostuaren eskakizunetara egokitzen diren egiaztatzea. Egiaztapen hori Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzan egingo da.

2. Aipatutako prozesutik baztertutako pertsonen zerrenda argitaratzea, eta interesdunei **hiru egun balioduneko epea** ematea administrazio-erreklamazioa aurkezteko, egokitzat jotzen dituzten arrazoietan oinarrituta. Erreklamazio hori HEZIGUNEA atariaren bidez aurkeztuko da. Horretarako, gida bat jarriko da hautagaien eskura, eta Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko da.

3. Nahitaezko baldintzak betetzen dituztenei aurkeztutako memoria baloratuko zaie. Memoriak baloratzeko Balorazio Batzorde Orokorra osatuko da. Honek, beharrezkotzat jotzen badu, aholkulari tekniko adituen laguntza izan dezake memoriak baloratzeko. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetara mugatuko dira, eta horietan oinarrituta baino ez diote lagunduko Balorazio Batzorde Orokorrari.

4. Merezimenduen balorazioa: Memorian eman daitekeen puntuazioaren % 50 baino gehiago lortuz gero egingo da balorazioa. Balorazioa Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzaren eta Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzaren zerbitzuetan eta Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko

valorados.

En caso de que se produjesen empates en el total de la puntuación, esto se resolverá atendiendo sucesivamente a la mayor puntuación en cada uno de los apartados del baremo, conforme al orden establecido en el mismo.

**Séptimo**.- **Fases del proceso de valoración**.

1. Comprobación de la adecuación de las personas a los requisitos del puesto solicitado. Esta comprobación será realizada en la Dirección de Gestión de Personal del Departamento de Educación.

2. Publicación del listado con las personas excluidas del mencionado proceso, y concesión de **un plazo de tres días hábiles** a las personas interesadas para presentar reclamación administrativa, en base a los motivos que estime oportunos. Esta reclamación se presentará a través del portal HEZIGUNEA. Para ello, se pondrá a disposición de las personas candidatas de una guía, publicada en la página web del Departamento de Educación.

3. A quienes cumplan con los requisitos preceptivos, se les valorará la memoria presentada. Para la valoración de las memorias se formará una Comisión General de Valoración. Ésta, si así lo considera necesario, podrá contar con personal asesor técnico experto para la valoración de las memorias. Dicho personal asesor se limitará al ejercicio de sus especialidades técnicas, en base exclusivamente a las cuales colaborarán con la Comisión General de Valoración.

4. Valoración de los méritos: La valoración se hará en el caso de de obtener más de un 50% de la puntuación otorgable en la memoria. Esta valoración será realizada en los servicios correspondientes de la Dirección de Planificación y Organización y de la de Tecnología y Aprendizajes

Zuzendaritzan egingo da.

**Zortzigarrena.- Balorazio Batzorde Orokorra.**

Balorazio Batzorde Orokor bat sortuko da ebazpen-proposamena egiteko, eta honako kide hauek izango ditu:

Presidentea:

- Inge Gorostiaga Luzarraga, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzako Lanbide Heziketaren arduraduna. Ordezkoa: Aitor Lopez de Aberasturi Ortiz de Pinedo, Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzako Lanbide Heziketako arduraduna.

Batzordekideak:

- Jon Labaka Intxauspe, TKNIKAko zuzendari exekutiboa. Ordezkoa: Pili Alonso Suarez, Ingurune estrategikoetan aplikatutako berrikuntzaren arloko zuzendaria.

- Agustin Agirre Andonegui, ITLENTeko zuzendari exekutiboa. Ordezkoa: José Ramón Gómez Laconcha, ITLENTeko kudeaketa integratuaren arloko Zuzendaria.

Idazkaria:

- Laura Oleaga Perez de Mendiguren, Teknologia eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzako teknikaria. Ordezkoa: Maria Jose Gonzalez San Vicente, Teknologia eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzako teknikaria.

Balorazio Batzorde Orokorreko kideak errekusatu daitezke, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Avanzados y en la Dirección de Gestión de Personal del Departamento de Educación.

**Octavo.- Comisión General de Valoración.**

Se creará una Comisión General de Valoración con el objeto de proceder a la elaboración de la propuesta de Resolución, y estará compuesta por los siguientes miembros:

Presidente/a:

- Inge Gorostiaga Luzarraga, responsable de Formación Profesional de la Dirección de Tecnología y Aprendizajes Avanzados. Sustituto/a: Aitor Lopez de Aberasturi Ortiz de Pinedo, responsable de Formación Profesional de la Dirección de Planificación y Organización.

Vocales:

- Jon Labaka Intxauspe, Director ejecutivo de TKNIKA. Sustituto/a: Pili Alonso Suarez, Directora del área de Innovación aplicada en entornos estratégicos.

- Agustin Agirre Andonegui, Director ejecutivo de ITLENT. Sustituto/a: José Ramón Gómez Laconcha, Director del área de gestión integrada de ITLENT.

Secretario/a:

- Laura Oleaga Perez de Mendiguren, técnica de la Dirección de Tecnología y Aprendizajes Avanzados. Sustituto/a: Maria Jose Gonzalez San Vicente, técnica de la Dirección de Tecnología y Aprendizajes Avanzados.

Los miembros de la Comisión General de Valoración relacionados en el presente apartado, podrán ser recusados, de conformidad con lo establecido en el artículo 24 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

**Bederatzigarrena.- Behin-behineko ebazpena.**

1. Balorazio-prozesua egin ondoren, Balorazio Batzorde Orokorreko presidenteak deialdi honen ebazpen-proposamena bidaliko dio Langileak Kudeatzeko zuzendariari, azken horrek deialdiaren behin-behineko ebazpena eman dezan, onartutako eta baztertutako langileekin, eta hautagaiei emandako puntuazioarekin.

2. Behin-behineko ebazpena departamentu honetako webgunean argitaratuko da, "Langileria/zerbitzu-eginkizunak" atalean.

3. Era berean, behin-behineko ebazpen hori eta dagozkion eranskinak HEZIGUNEAren atarian (https://hezigunea.euskadi.eus) kontsultatu ahal izango dituzte hautatutako pertsonek, aurkeztutako eskabidearekin hasitako espedientetik.

4. Ebazpen hori argitaratu ondoren, **hiru egun balioduneko epea** irekiko da erreklamazioak egiteko.

**Hamargarrena.- Behin betiko ebazpena.**

1. Egindako erreklamazioak aztertu ondoren, edo erreklamaziorik ez badago, Langileak Kudeatzeko zuzendariak deialdiaren behin betiko ebazpena argitaratuko du, honako hauek adierazita: hautagai bakoitzari emandako balorazioak, hautatutako pertsona baztertuak, eta baita dagokion adierazpena ere, lanpostua hutsik geratzen bada.

2. Behin betiko ebazpena eta zerrendak sail honen Interneteko helbide honetan argitaratuko dira, interesdunei jakinarazteko: https://hezigunea.euskadi.eus/ eta Sail honen webgunean.

3. Era berean, behin betiko ebazpen hori eta

**Noveno.- Resolución provisional.**

1. Una vez realizado el proceso de valoración, la presidencia de la Comisión General de Valoración remitirá a la Directora de Gestión de Personal una propuesta de resolución de la presente convocatoria, al efecto de que esta última adopte la resolución provisional de la convocatoria con el personal admitido, excluido y la puntuación otorgada a las correspondientes candidaturas.

2. La resolución provisional se publicará en la página web de este Departamento, en la sección de "Personal/comisiones de servicio".

3. Asimismo, esta resolución provisional y los anexos correspondientes se podrán consultar por las personas seleccionadas a través del portal de HEZIGUNEA (https://hezigunea.euskadi.eus), desde el expediente iniciado con la solicitud presentada.

4. Una vez publicada dicha resolución, se abrirá **un plazo de tres días hábiles** para efectuar reclamaciones.

**Décimo.- Resolución definitiva.**

1. Una vez analizadas las posibles reclamaciones, o si no las hubiera, la Directora de Gestión de Personal hará pública la resolución definitiva de la convocatoria con expresión de las valoraciones otorgadas a cada una de las personas candidatas, la persona seleccionada, las personas excluidas, así como la declaración correspondiente en el caso de que el puesto resulte desierto.

2. La resolución definitiva y los listados se publicarán en la siguiente dirección para su conocimiento por los interesados: https://hezigunea.euskadi.eus/ y en la página web de este Departamento.

3. Asimismo, la resolución definitiva y los anexos correspondientes se podrán consultar

dagozkion eranskinak HEZIGUNEAren atarian (https://hezigunea.euskadi.eus) kontsultatu ahal izango dituzte hautatutako pertsonek, aurkeztutako eskabidearekin hasitako espedientetik.

por las personas seleccionadas a través del portal de HEZIGUNEA (https://hezigunea.euskadi.eus), desde el expediente iniciado con la solicitud presentada.

4. Behin betiko ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

4. Contra la resolución definitiva podrá interponerse recurso de alzada ante la Viceconsejería de Administración y Servicios en el plazo de un mes desde el día siguiente al de su publicación, de acuerdo con la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

**Haimakagarrena.- Ordezkapenak egiteko zerrenda.**

**Undécimo.- Lista de sustituciones.**

1. Gutxieneko puntuazioa gainditu eta hautatuak izan ez diren pertsonak, lanpostu bakoitzeko memorian eta merezimenduetan lortutako puntuazioaren arabera poltsa batean sartuko dira. Deialdi hau ebatzi ondoren sor daitezkeen beharrak betetzeko izango da poltsa hori.

1. Aquellas personas que, habiendo superado la puntuación mínima necesaria, no hubieran sido seleccionadas, pasarán a formar parte de una bolsa en función de la puntuación obtenida en la memoria y méritos para cada puesto. Esta bolsa estará destinada a la cobertura de las necesidades que se produzcan con posterioridad a la resolución de esta convocatoria.

2. Lan-poltsa horiek prozedura hau amaitzean hutsik geratzen diren lanpostuak betetzeko eta deialdi hau ebatzi ondoren sortzen diren zerbitzu-premia posibleak betetzeko erabiliko dira.

2. Esta bolsa estará destinada a la cobertura de los puestos que quedasen desiertos a la conclusión del presente procedimiento y para la cobertura de posibles necesidades del servicio que se produzcan con posterioridad a la resolución de esta convocatoria.

3. Zerrenda bat eratuko da eta eskaintzak haren ordenaren arabera egingo dira. Hala ere, ordezkapenetarako hautagaiak ez dira zigortuko lanpostu baterako ordezkapen- eskaintza bati uko egiten badiote.

3. Se configurará una lista y se realizarán las ofertas por el orden de la misma, si bien no se penalizará a los y las candidatas a sustituciones si rechazan una oferta de sustitución.

**Hamabigarrena.- Izendapena eta luzapenak.**

**Duodécimo.- Nombramiento y prórrogas.**

a) Oro har, hautatuak izan diren hautagaiak plaza horretarako izendatuko dira, 2024/2025 ikasturtea amaitu arte.

a) Con carácter general, las personas candidatas que hayan sido seleccionadas serán nombradas o asignadas en dicha plaza hasta la finalización del curso escolar 2024/2025.

Dagokion gobernu-organoak onartutako programa espezifikoei lotutako lanpostuen kasuan, aukeratutako hautagaiak 2025/2026 ikasturtea amaitu arte zerbitzu eginkizunean edo behin-behineko esleipenaren bidez izendatuko dira lanpostu horretan, eta gehienez beste bi ikasturtez luzatzeko aukera izango dute.

I. eranskinean, plaza bakoitzaren ezaugarriez eta betekizunez gain, dagokion gobernu-organoak onartutako berariazko programekin plaza lotuta dagoen eta hauen identifikazioa zehazten da.

Zerbitzu – eginkizunen emakida ondoriorik gabe geratuko da, baldin eta lekualdatze-lehiaketan arauz bete direlako edo lanpostuari dagokion hornitzeko moduagatik lanpostu hutsik ez badago. Era berean, ondoriorik gabe geratuko da lanpostuaren titularra itzultzen bada edo erregelamenduzko beste edozein estaldura ematen bazaio.

b) Hautatutako pertsona zerbitzu aktiboaz bestelako administrazio-egoera batean badago, zerbitzu-eginkizunaren edo behin-behineko esleipenaren esleipena, itzultzeko eskaeraren baldintzapean egongo da. Eskaera hori berehala egin beharko da, eta zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena aldi berean esleituko zaizkio. Hala egin ezean, eskubidea galduko du, eta puntuaziorik handiena duen hurrengo pertsona hautatuko da.

c) Karrerako funtzionarioei zerbitzu-eginkizuna emango zaie aipatutako lanpostua betetzeko, 2024/2025 ikasturtea amaitu arte.

En el caso de plazas vinculadas a programas específicos aprobados por el correspondiente órgano de gobierno, las personas candidatas que hayan sido seleccionadas serán nombradas o asignadas en dicha plaza hasta la finalización del curso escolar 2025/2026, con la posibilidad de prorrogar la comisión de servicios o asignación provisional un máximo de dos cursos escolares más.

En el Anexo I, además de las características y requisitos de cada una de las plazas, se especifica si la plaza está vinculada a programas específicos aprobados por el correspondiente órgano de gobierno y la identificación de los mismos.

La concesión de las comisiones de servicios quedará sin efecto en el caso de que no hubiese plaza vacante para su materialización efectiva, a consecuencia de su cobertura reglamentaria en concurso de traslados o la forma de provisión que corresponda al puesto. También quedará sin efecto en el supuesto de reingreso de la persona titular del puesto o cualquier cobertura reglamentaria.

b) En el caso de que la persona seleccionada se encuentre en una situación administrativa distinta a la del servicio activo, la adjudicación de la comisión de servicios o de la asignación provisional estará condicionada a su solicitud de reingreso, que deberá producirse de manera inmediata, adjudicándosele simultáneamente la comisión de servicios o la asignación provisional. De no hacerlo así, decaerá su derecho y se seleccionará a la siguiente persona con mayor puntuación.

c) Al personal funcionario de carrera se le concederá una comisión de servicios para el desempeño del referido puesto hasta la finalización del curso escolar 2024/2025.

Dagokion gobernu-organoak onartutako programa espezifikoei lotutako plazen kasuan, hautatuak izan diren hautagaiak plaza horretan izendatuko dira 2025/2026 ikasturtea amaitu arte, zerbitzu-eginkizuna gehienez beste bi ikasturtez luzatzeko aukerarekin.

En el caso de las plazas vinculadas a programas específicos aprobados por el correspondiente órgano de gobierno, las personas candidatas que hayan sido seleccionadas serán nombradas en dicha plaza hasta la finalización del curso escolar 2025/2026, con la posibilidad de prorrogar la comisión de servicios un máximo de dos cursos escolares más.

d) Lan-kontratuko langile finkoen kasuan, aipatutako lanpostua behin-behineko esleipen-ebazpenaren bidez beteko da, 2024/2025 ikasturtea amaitu arte.

d) En el caso del personal laboral fijo, la provisión del referido puesto se efectuará mediante resolución de asignación provisional hasta la finalización del curso escolar 2024/2025.

Dagokion gobernu-organoak onartutako programa espezifikoei lotutako plazen kasuan, hautatuak izan diren hautagaiak plaza horretan izendatuko dira 2025/2026 ikasturtea amaitu arte, behin-behineko esleipenaren bidez, eta gehienez beste bi ikasturtez luzatzeko aukerarekin.

En el caso de las plazas vinculadas a programas específicos aprobados por el correspondiente órgano de gobierno, las personas candidatas que hayan sido seleccionadas serán asignadas en dicha plaza hasta la finalización del curso escolar 2025/2026, con la posibilidad de prorrogar la asignación provisional un máximo de dos cursos escolares más.

e) Praktiketako funtzionarioek zerbitzu-eginkizun bat eman ahal izateko, karrerako funtzionario izan beharko dute 2024/2025 ikasturtean.

e) Para el personal funcionario en prácticas la concesión efectiva de una comisión de servicios quedará subordinada a que ostenten la condición de funcionario de carrera en el curso 2024/2025.

f) Era berean, bitarteko langileak, hautatuak izan daitezkeenak, lanpostu horretan izendatuko dira 2024/2025 ikasturtea amaitu arte.

f) Asimismo, el personal interino que pudiera resultar seleccionado será nombrado en ese puesto hasta la finalización del curso escolar 2024/2025.

Dagokion gobernu-organoak onartutako programa espezifikoei lotutako plazen kasuan, hautatuak izan diren hautagaiak plaza horretan izendatuko dira 2025/2026 ikasturtea amaitu arte, behin-behineko esleipenaren bidez, eta gehienez beste bi ikasturtez luzatzeko aukerarekin.

En el caso de las plazas vinculadas a programas específicos aprobados por el correspondiente órgano de gobierno, las personas candidatas que hayan sido seleccionadas serán nombradas en dicha plaza hasta la finalización del curso escolar 2025/2026, con la posibilidad de prorrogar la asignación provisonal un máximo de dos cursos escolares más.

